

8. FUNTZESKO JARDUERAK

Gure enpresak, ekoizpena du jarduera nagusi (Jolas egokituen salmenta) eta helburu soziala dauka. Honek funtzionatu dezan eta aurrera jarraitu dezan, zenbait ezaugarri bete behar ditugu.

Enpresaren misioa, gizarteratzea sustatzea da, bereziki ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen artean. Ikuspegia epe laburrean beste desgaitasun batzuk hartzen dituzten enpresa gehiagorekin bat egitea da, enpresa handiagoa izateko. Epe luzera, sare berdearekin bat egitea gustatuko litzaiguke, materiala errazten digun enpresa ekologikoarekin.

Ahalik eta modu eraginkorrean ekoitzi behar dugu, “Pinbro Games” fabrian, Paredillasko Poligonoan kokatuta, errentagarria izateko eta diru asko ez galtzeko makinarian. Prezioak finkatu behar dira eta finantziak lortu behar dugu. Horretarako, ondo koordinatu behar dira ekoizpen faktoreak. Honetaz aparte, langile guztien arteko koordinazioa funtsezkoa da lan-giro ona eraikitzeko eta gatazkak saihesteko.



Gainera, marketin-estrategia on bat prestatu behar dugu, proiektua bultzatzen eta ahalik eta jende gehienarengana iristen lagunduko diguna. Horrela, gure helburu nagusia betetzeko. Publizitatea egiteko, **@lucialovesromeo1**-ekin lankidetzan arituko gara sare sozialetan. Gure produktuak emango dizkiogu eta haiei buruzko bideo bat argitaratuko du.

Azkenik, merkatuaren aurrerapenetaz adi egon beharko gara gure proposamenari eusteko eta hazteko. Eguneratuta egotea lehentasunezkoa da gure enpresa aurrera egitea nahi badugu. Oro har, gure helburu nagusia betetzeko eta ikusmen desgaitasun dituzten ume, gazte eta pertsona guztiak eroso jolastu ahal izateko.